DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hirigintza Sostengagarria
Urbanismo Sostenible
San Martin, 48 | Tel. 010 - 943483838 | www.donostia.eus
20005 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

DONOSTIAKO UDALERRIKO ALTZA AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINAK BIRGAITZEKO JABEEN ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZAK ETA PARTIKULAR KALTEBEREI GEHIGARRIAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....3
1. Artikulua – OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA.....3
2. Artikulua - ARAUDI ARAUTZAILEA.....3
3. Artikulua - OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA.....3
4. Artikulua - ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO JARDUKETAK. 3
5. Artikulua - FINANTZAKETA, AURREKONTU-KREDITUAK ETA OINARRI HAUETAKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEKO ZENBATEKOA.....4
6. Artikulua - ESLEIPEN-ARAUBIDEA.....7
II. KAPITULUA ONURADUNEN, ESKU HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUEN ETA ERAIKINEN BETEKIZUNAK.....7
7. Artikulua - LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK.....8
8. Artikulua – LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.....8
9. Artikulua – BESTE ERAKUNDE ESKU-HARTZAILE BATZUK.....9
10. Artikulua – BIRGAITUKO DIREN ERAIKINEN BETEKIZUNAK.....10
11. Artikulua - KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BETEKIZUNAK.....11
12. Artikulua – BATZORDE KUDEATZAILEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK.....12
III. KAPITULUA. OINARRI HAUETATIK DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK.....13
13. Artikulua – DEITUTAKO DIRULAGUNTZEN JATORRIA.....14
14. Artikulua – OHAR OROKORRAK.....14
15. Artikulua – LAGUNTZA GEHIGARRIAK KALTEBERATASUN EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDEN PERTSONA FISIKOENTZAT EDO BIZIKIDETZA-UNITATEENTZAT.....14
IV. KAPITULUA. JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK.....15
16. Artikulua – AURRETIAZKO AZTERLANAK ETA PROIEKTU TEKNIKOAK.....17
17. Artikulua – JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK, AMIANTO-HONDAKINAK KENDU, MANIPULATU, GARRAIATU ETA KUDEATZEKO.....17
18. Artikulua – JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK, ERAIKINEKO ENERGIA PRIMARIO BERRIZTAEZINAREN KONTSUMOA MURRIZTEKO, ETXEBIZITZEN IRISGARRITASUNA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hirigintza Sostengagarria
Urbanismo Sostenible
San Martin, 48 | Tel. 010 - 943483838 | www.donostia.eus
20005 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

SUSTATZEKO ETA BESTE JARDUERA BATZUETARAKO.....18
19. Artikulua – DIRULAGUNTZAK HANDITZEKO AUKERA.....20
V. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK, JARRAIPENA ETA ITZULKETA.....20
20. Artikulua – LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA GUZTIEN PIGNORAZIOA EDO KOBRANTZAREN LAGAPENA.....20
21. Artikulua – JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.....21
22. Artikulua – JABEEN ERKIDEGOARI ELEMENTU PRIBATIBOEN INTER VIVOS BORONDATEZKO XEDAPENEZ EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA.....21
23. Artikulua – GIZARTE-IRIZPIDEAGATIKO LAGUNTZAK ITZULTZEA.....22
24. Artikulua – DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ESLEIPEN EZEGOKIEN KASUAN.....24
VI. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN PROZEDURA, IZAPIDETZEA ETA ORDAINKETA.....24
25. Artikulua – ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA AURKEZPENA.....24
26. Artikulua. AKATSAK EDO OMISIOAK ZUZENTZEA.....26
27. Artikulua – TRAMITAZIOA, EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA.....26
28. Artikulua – ERREKURTSOAK.....27
29. Artikulua – LAGUNTZEN BALDINTZAK ALDATZEA.....27
30. Artikulua – EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.....28
31. Artikulua – DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....28
32. Artikulua – DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.....31
33. Artikulua – DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA. KONTURAKO AURRERAKINAK.....32
34. Artikulua - DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO SEKUENTZIA.....32
35. Artikulua – JASOTAKO LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA.....34
36. Artikulua – EZ-BETETZEA ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA....35
37. Artikulua – DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK. ZEHAPEN-PROZEDURA.....36
38. Artikulua -ADMINISTRAZIO BIDEAREN AMAIERAREN ADIERAZPENA.....36
39. Artikulua – DATU PERTSONALEN BABESA.....36

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua – OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA

Oinarri hauen xedea da Oinarri hauen 1. Eranskinean zerrendatu eta deskribatu diren Donostiako udalerriko Altza auzoko bizitegi-eraikinek jaso zitzaketen laguntza ekonomikoen izapidetzea eta, hala badagokio, esleitzea arautzea eta koordinatzea, bai eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Donostiako Udalari esleitu dion dirulaguntza zuzenaren bitartez emango diren kalteberatasun ekonomikoko egoerarengatiko laguntza indibidualak arautzea eta koordinatzea ere.

2. Artikulua - ARAUDI ARAUTZAILEA.

Oinarri arautzaile hauetan ezarritako dirulaguntzak, oinarrietan xedatutakoak ez ezik, dagokion deialdiak eta dirulaguntza emateko ebazpenak ere arautuko dituzte, bai eta honako arau hauetan xedatutakoak ere:

a 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

b 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

c Euskal Autonomia Erkidegoaren Gobernu Kontseiluaren akordioa, 2022ko abenduaren 27koa, Donostiako Udalari zuzeneko dirulaguntza eman ziona Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren aurrekontuaren kontura eta EAEko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren zuzendariaren 2023ko maiatzaren 2ko Ebazpena.

d Halaber, aplikatzekoak diren zuzenbide administratiboko beste lege guztiak ere aplikatuko dira.

Entitate onuradunek laguntza ematen duen Administrazioak horretarako har ditzakeen arauak bete beharko dituzte, bai eta autonomia erkidegoko, Estatuko eta Europako gainerako agintaritza eskudunek eta aipatutako finantzaketaren jatorriagatik laguntza horien onuradun izateagatik ezarrita dauden betebehar guztiak ere.

3. Artikulua - OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA.

Oinarri arautzaile hauen aplikazio-eremua Udalari hiri-berroneratze integraleko esku-hartzerako emandako zuzeneko dirulaguntza emateko mugatutakoa da, oinarri hauen 1. artikuluan definitutako eremuan, "Eraikinen Birgaitze Sakona" 4. artikuluan zehazten diren baldintzetan lortzeko helburuarekin. Artikulu horrek eraikinen birgaitze sakonerako kontuan hartu behar diren jarduketa zehatzak jasotzen ditu, Oinarri hauetako 1. Eranskinean zerrendatutako Donostiako Altza auzoko bizitegi-eraikinei dagokienez.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

4. Artikulua - ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO JARDUKETAK.

Deialdi honen xedeetarako, "eraikinen birgaitze sakontzat" hartzen da jarraian adierazten diren jarduketak biltzen dituena:

a Egitura eta eraikuntza mailan egoera desegokian dauden eraikinen kasuan, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren txostenak eskatzen eta gomendatzen dituen jarduketak halabeharrez sartuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko 3/2015 Legeak, Etxebizitzarenak, 52. artikuluan xedatzen duen txosten hori teknikari eskudun batek idatziko du, indarreko eredu ofizialei jarraiki.

b 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. Eranskinean, Eraikuntza antolatzeko Legearen 3. artikuluan edo aipatuen ordezko araudian zehatutako bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzen kasuan, bizigarritasun-baldintza egokiak bermatuko dituzten espazio-antolakuntza bat eta eraikuntza-ezaugarriak ziurtatu beharko dira eraikinean.

c Etxebizitzen irisgarritasuna bermatzeko jarduketak. Horien artean daude igogailuak instalatzea, arrapalak eta/edo kaletik etxebizitzetara iristea ahalbidetuko duen beste edozein jarduketa gauzatzea, beti ere 68/2000 Dekretuan jasotako irisgarritasun-irizpideak (lehentasuna izango dute) edo bideragarritasun-irizpideak (ezinezkoa bada irisgarritasuna bermatu) betez.

d Berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa murrizteko jarduketak, ziurtapen energetikoari dagokionez, honako irizpide eta helburu hauekin:

- Birgaitzearen xede den eraikinean energia-eskaria gutxienez % 35 murriztea.
- Ahalegina egingo da energia primario berriztaezinaren kontsumoaren murrizte optimoa I (ΔCep, nrenv) lortzeko, % 45 edo gehiagokoa, neurri pasiboen eskutik; eta % 60 edo gehiagoko murriztea lortzeko esku-hartze osoan. Kontsumo hori % 30etik behera murrizten dutenak ez dira hautagarriak izango.

Energia berriztaezinaren kontsumoa murrizteari, berokuntzaren eta hoztearen eskari globala murrizteari eta kalifikazio energetikoa hobetzeari dagokienez, efizientzia energetikoaren hobekuntza egiaztatzeko, eraikin edo etxebizitza bakoitzaren jarduketaren aurreko eta ondorengo eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak alderatuko dira.

Ziurtagiri horiek, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak arautuak, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera egin behar dira (235/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Eraikinen eraginkortasun energetikoa egiaztatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena, ofizialki onartutako programa informatikoren bat erabiliz), autonomia-erkidegoko organo eskudunean erregistratuta egon behar dira, eta teknikari eskudunek eman behar dituzte. Proiektuek etiketa berde eta digitalerako egiten duten ekarpenaren ehunekoak jaso beharko dira, eta justifikazio-dokumentazioa bidali beharko da, aplikatzekoa den Europako eta nazio-mailako araudia betetzen dela azpimarratuz.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Nahitaezkoa izango da eraikinaren inguratzailearen elementu guztietan esku hartzea (fatxadak, estalkia, hegalak, patioak...), energia primario berriztaezinaren kontsumoa % 30 edo gehiago murrizteko. Ez dira hautagarriak izango eraikin bereko etxebizitza edo lokal batean edo gehiagotan egindako jarduketak, banaka hartuta.

Azken lau urteetan energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeak egin dituzten eraikinetan, berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra lehen ezarritako ehuneko berean edo handiagoan murriztu dela egiaztatzen bada, ez dute bete beharko berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra murrizteko baldintza.

Esku-hartze horietan ez bada lortzen ezarritako ehunekoaren pareko edo goragoko murrizketarik, baldintza hori betetzat jo ahal izango da, baldin eta esku-hartze horietan egindako jarduketak eta eskaeraren xede den jarduketan egiten direnak batera kontuan hartuta, ezarritako eskaera-murrizketaren ehunekoa lortzen bada. Hori egiaztatzeko, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Kalifikazio energetikoan lortutako datuen hobekuntza horiek lortzeko, aurreko jarduketa egin ahal izango da, edo jarduera hori guztiz edo partzialki konbinatu ahal izango da honako hauekin:

1 Baoak eta horien inguratzaile termikoko elementu opakuekiko elkarguneak aldatzeko edo ordezteko jarduketak, horien ezaugarriak Eraikuntzaren Kode Teknikoaren OD HEko 3.1.1.a – HE1 eta 3.1.3.a – HE1 tauletan ezarritako transmisio termikoaren eta, hala badagokio, airearekiko iragazkortasunaren muga-balioetara egokitzeko.

2 Galdara indibidualak errendimendu handiko galdaraz ordeztea. Erregai fosilak erabiltzen ez dituzten ekipoen instalazioa sustatuko da.

3 Biomasa-galdara duten berokuntza-sistemak eta/edo etxeko ur beroaren sistema zentralizatuak edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk instalatzea, kontsumo indibidualizatuak kontrolatzeko banaketa barne hartuta.

4 Eraikineko Energia Elektriko Fotovoltaikoa ekoizteko sistemak instalatzea, edo autokontsumo partekatuko komunitateak edo tokiko energia-komunitateak eratuz.

5 Energia berriztagarriak sortzeko beste edozein sistema instalatzea.

e - Etxebizitzetako energia-portaeraren eta airearen kalitatearen monitorizazioa eta jarraipena.

Bizigarritasun-baldintzak hobetzeko neurrien eta jarduketen eraginkortasuna eta efizientzia egiaztatzeko, tenperaturaren, hezetasun erlatiboaren eta CO2 mailaren baldintzak monitorizatuko dira eta, instalazioak aukera ematen badu, ekoizpen termikoko sistemaren kontsumoa ere bai. Monitorizazio hori ahalik eta etxebizitza gehienetan egingo da prozesuaren hasieratik (obrak egin aurretik) eta horiek amaitu ondorengo bi urteetan. Instalazioaren ustiapenean eta Zerbitzuan datuak neurtzeko behar diren ekipoak Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak (DPTAU) zehaztutakoak izango dira. Ekipoek, instalatu ondoren, neurtutako datuen irakurketa bidaliko dute Eusko Jaurlaritzaren zerbitzarietara, horiek tratatu eta ustiatzeko, eta Oinarri hauetan

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

aurreikusitako laguntzen onuradun diren etxebizitzen titularrek berariaz baimenduko dute datu horiek adierazitako helburuetarako hartzea.

f - Araudira egokitzea eta saneamenduko, ur-hornidurako, indar elektrikoko, telekomunikazioen, gas eta eraikinen suteen aurkako segurtasuneko instalazioak eguneratzea.

g - Amianto-hondakinak erretiratzea, manipulatzea, garraiatzea eta kudeatzea, enpresa baimenduen bidez, hala badagokio.

Goian deskribatutako jarduketak proiektu tekniko bakar batean jasoko dira. Proiektua jarduketa guztietarako garatuko da. Nolanahi ere, jarduketaren baten edo batzuren absentzia onar daiteke, beti ere eraikinak bere eskakizunak betez gero proiektua idazteko unean eta egoera hori egokiro justifikatuz gero aipatuan.

Edonola ere, birgaitzeko esku-hartzeek bat etorri beharko dute aplikatu beharreko hirigintza-planetako preskripzioekin, behar diren administrazio-baimenak izan beharko dituzte, eta EJren eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

Laguntzak esleitzeko eta ondoren justifikatzeko jarduketa bakoitzaren kostuak egiaztatu ahal izateko, laguntza horiei dagozkien atalak ondoko 01. Taulan agertzen diren kapitulu eta azpikapituluetan jaso beharko dira:

JARDUKETA
MONITORIZAZIOA, BEZ BARNE
EIT eta/edo ERAIKINAREN LIBURUA, BEZ BARNE
IKUSKARITZA EBERGETIKOA, BEZ BARNE
AURRETIAZKO AURREPROIEKTUAK, BEZ BARNE
AURRETIAZKO BESTE LAN BATZUK, BEZ BARNE (Txostenak, az. geoteknikoak, ...)
AURRETIAZKO LANAK GUZTIRA
E.E. PASIBOAK, BEZ BARNE (ITXITURA + % Kal. K + % Biz.+ % Segur.+ % M. Os)
E.E. AROTZERIA, BEZ BARNE (Arotzeria + % Kal. K+ % Biz.+ % Segur.+% M. Os)
E.E AKTIBOAK, BEZ BARNE (Galdara ez fosilak + % Kal. K + % Biz.+ % Segur.+% M. Os)
E.E BERRIZTAGARRIAK, BEZ BARNE (FOTOVOLTAIKOA+ % Kal. K + % Biz. + % Segur.+% M. Os)
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA GUZTIRA
AMIANTOA KENTZEA, BEZ BARNE
AMIANTOA KENTZEA GUZTIRA
ENERGIA-KOMUNITATEA, BEZ BARNE
E. BERRIZTAGARRI KOLEKTIBOAK GUZTIRA
BIRGAITZEAREN ORDAINSARIAK, BEZ BARNE (proiektua + D.F.) (Aurreko kapituluen zati proportzionala)
KUDEAKETAREN ORDAINSARIAK, BEZ BARNE (Administratzailea, Birgaitzearen Kudeatzailea) (Aurreko kapituluen zati proportzionala)
BIRGAITZE ENERGETIKO EFIZIENTEAREN ORDAINSARIAK GUZTIRA
IRISGARRITASUNA, BEZ BARNE (Igogailuak, arrapalak, ... + % Kal. K. + % Biz.+ % Segur.+% M. Os)
IRISGARRITASUNA GUZTIRA
SUTEEN AURKAKO BABESA, BEZ BARNE (Egokitzapena ODra + % Kal. K. + % Biz.+ % Segur.+% M. Os)
INSTALAZIOAK EGUNERATZEA, BEZ BARNE (Egokitzapena EKTra + % Kal. K. + % Biz.+ % Segur.+% M. Os)
BESTE ESKU-HARTZE BATZUK, BEZ BARNE (Beste guztiak, EIT obrak barne +% Kal. K. + %Biz.+ % Segur.+% M. Os)
OBRA OSAGARRIAK GUZTIRA
BIRGAITZEAREN ORDAINSARIAK, BEZ BARNE (proiektua + D.F.) (Aurreko kapituluen zati proportzionala)
KUDEAKETAREN ORDAINSARIAK, BEZ BARNE (Administratzailea, Birgaitzearen Kudeatzailea) (Aurreko kapituluen zati proportzionala)
BIRGAITZEAREN ORDAINSARIAK GUZTIRA
KALTEBERATASUN EKONOMIKOARENGATIKO DIRULAGUNTZA GEHIGARRIA
KALTEBERATASUNAGATIKO LAGUNTZAK GUZTIRA
GUZTIRA

01. Taula, Proiektuaren kapituluak eta azpikapituluak

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Ez dira diruz lagunduko Oinarri hauetako 25.1 artikuluak Lehen Fasean bete beharreko dokumentazioaren barruan eskatzen duen programan integratzeko eskaera aurkeztu aurretik hasitako obrak.

5. Artikulua - FINANTZAKETA, AURREKONTU-KREDITUAK ETA OINARRI HAUETAKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEKO ZENBATEKOA

Oinarri hauetako zuzkidura ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa 6.500.000 eurokoa da. Horietatik, 5.038.073,15 euro Euskal Autonomia Erkidegoaren Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 27an onartu zuen akordioari jarraiki Donostiako Udalari eman zitzaion zuzeneko dirulaguntzari dagozkio. Beste guztia, Donostiako Udalaren finantzaketa propioari.

Oinarri hauen xede diren laguntzen finantzaketak ondoko urterokoei erantzuten die:

	2024	2025	GUZTIRA
Eraikinaren Birgaitze Sakona	3.250.000 euro	3.250.000 euro	6.500.000 euro

Banaketa hori gutxi gorabeherakoa da, oinarri hauetan aurretiazko ordainketan aurreikusten baitira. Nolanahi ere, banaketa hori aldatzeko urteroko zenbatekoak berregokitzeko dagokion espedientea izapidetu beharko da.

Halaber, konturako ordainketak ere aurreikusten dira. Horrexegatik, eta Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 57.3 artikulua betez, esleipen-ebazpenak zenbatekoa urterokoetan banatuko ditu, diruz lagundu den jarduketaren gauzatze-erritmoaren arabera.

Laguntzak eskatzeko epealdiak eta faseak oinarri hauetan eta, zehazki, bere 25. artikuluan aurreikusitako horiek izango dira. Esku-hartzeak, gehienez, 2025eko urriaren 30erako egongo dira gauzatuta.

6. Artikulua - ESLEIPEN-ARAUBIDEA.

Laguntza honen esleipena, Udalaren aldetik, norgehiagokako araubidearen bidez egingo da. Horretarako, jabeen erkidego eta bizikidetza-unitate bakoitzaren ebaluazio indibidualizatua egingo da, Oinarri hauekin batera doan 1. Eranskinean jasotako eraikinen barruan.

Laguntza hauek esleitzeko, aurkeztu diren eskariak jarraian jasotako irizpideen arabera baloratuko dira:

a) Eraikinean berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa % 60 edo gehiago murriztea eraikinean – 30 puntu.

b) Eraikinean berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa %45 eta %60 artean murriztea – 15 puntu.

c) Eraikinean berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa %30 eta %45 artean murriztea – 6 puntu.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

d) Eraikinaren birgaitzea integraltzat aintzat hartua izateko 4. artikuluak zehazten dituen baldintzen betetzeak Komunitatea behartuko balu igogailua instalatzera, igogailurik ez dagoelako, 8 puntu emango zaizkio apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren arabera irisgarritasun unibertsala bermatzen duten jarduketei (68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena; 2000/06/12ko EHAA). Aitzitik, 4 puntu emango zaizkie gutxienez erabilgarritasuna bermatzen duten jarduketei (ezinezkoa izan denean irisgarritasuna bermatzea). Azkenik, 2 punturekin baloratuko dira igogailua duten eraikinetan ibilbidea handitzeko egin beharreko jarduketak, bermatzeko pertsona guztiek igogailua modu autonomoan erabili ahalko dutela eta eraikinaren solairu guztietara iritsiko direla.

Berdinketa kasuan, eraikinetako etxebizitza-kopurua hartuko da aintzat eta lehentasuna izango du etxebizitza gutxiengan eragiten duen esku-hartzeak. Berdinketa badago oraindik, lehentasuna zehazteko aintzat hartuko da eskaria aurkezpen data 25.1 artikuluak hirugarren fase gisa jasotzen duen. Aipatu fasean, akatsak zuzendu edo dirulaguntzak jaso ahal izateko eskatutako eskakizun edo baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazio guztia aurkeztuko da.

Oinarri hauen xede diren laguntzen esleipena aurreko artikuluan adierazitako 6.500.000 euroko aurrekontu-zuzkiduraren mende dago. Horrenbestez, ez da dirulaguntza berririk esleituko aipatu zenbatekoa agortu eta gero.

II. KAPITULUA ONURADUNEN, ESKU HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUEN ETA ERAIKINEN BETEKIZUNAK

7. Artikulua - LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK.

Honako hauek izan daitezke laguntzen azken hartzaileak:

a Ilaran isolatutako edo taldekatutako familia bakarreko etxebizitzen jabeak edo gozamendunak, eta etxebizitza kolektiboko bizitegi-tipologiako eraikinen jabeak edo gozamendunak, bai eta haien etxebizitzenak ere, izan pertsona fisikoak, izan izaera pribatuko edo publikoko nortasun juridikoa dutenak.

b Jabeak edo gozamendunak, kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsona fisikoek edo bizikidetza-unitateek gizarte-irizpideagatik jaso dituzten laguntza osagarrien kasuan.

c Etxebizitzaren jabeak eta errentariak erabakitzen badute errentariak bere kontura ordaintzea dagozkion birgaitze-jarduketak, errenta ordaintzearen truke, errentariak jabeen erkidegoari edo, hala badagokio, jabe bakarrari eskatu ahal izango dio laguntza horiek eskatzeko eskatzen den erabakia hartzea. Kasu horretan, errentaria azken hartzailetzat hartu ahal izango da.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

d Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko organismo eta gainerako erakundeak, bai eta higiezinen jabe diren administrazio publikoen partaidetza osoa edo gehiengoa duten enpresa publikoak eta merkataritza-sozietateak ere.

e Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan edo aplikatu beharreko foru-arauetan ezarritakoaren arabera eratutako jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak.

f Modu bateratuan, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eraikinen jabeak, jabetza horizontalaren eratze-titulua eman ez badute.

g Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten etxebizitzen edo eraikinen jabeek osatutako kooperatiba-sozietateak, bai eta Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluaren arabera edo foru-arau aplikagarrietan baliokidea denaren arabera eratutako jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak osatzen dituzten jabeek, eta etxebizitzen erabilera-lagapeneko araubidean dauden kooperatibak ere.

h Eraikinen enpresa errentariak edo emakidadunak, bai eta kooperatibak ere, baldin eta izaera hori egiaztatzen badute, indarrean dagoen kontratu baten bidez, programaren xede diren birgaitze-obrak egiteko berariazko ahalmena ematen diena.

Jarduketa azken hartzaile bati baino gehiagori dagokienean, bakoitzak bere gain hartutako kostuaren eta erantzukizunaren arabera banatuko da laguntza.

Azken hartzaileek edo, hala badagokio, haien kontura jarduten duen birgaitzearen agenteak edo kudeatzaileak, laguntzaren zenbateko osoa dagozkion jarduketak ordaintzeko erabiliko dute.

Jabeen erkidegoak eta jabeen erkidegoen elkarteak direnean ere, arau hori aplikatuko da, alde batera utzita bai horren zenbatekoa, bai obren kostua, etxebizitzen jabeengan jasanarazi behar den, eta hala badagokio, merkataritzako lokalen jabeengan edo bestelako erabilera bateragarrien jabeengan, jabetza horizontalari buruzko legerian aurreikusitako arauen arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jabeen erkidegoko edo jabeen erkidegoen elkarteko kideren batek ezin badu laguntza jaso legezko arrazoiren batengatik, jabe edo gozamendun horri ez zaio egotziko jasotako laguntzaren zati proportzionala, eta komunitateko edo elkarteko gainerako kideen artean hainbanatuko da.

8. Artikulua – LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.

Dirulaguntzen eskabideekin batera edo aurretik, eta horiek betetzeko eska dakiekeen dokumentazioa alde batera utzi gabe, Oinarri hauetako 31. artikuluan azaltzen den bezala, laguntzen onuradunek eta azken hartzaileek, gainera, honako betebehar hauek bete beharko dituzte. Horretarako, honako jarduketa hauek egitera eta Udalari honako dokumentazio hau entregatzera behartzen dira, Udalak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari helaraz diezaion:

a Azken hartzaileak dirulaguntzaren onuraduntzat hartuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharren

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

ondorioetarako, eta egiaztatu beharko dute ez daudela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debekuen eraginpean, artikulu horren e) letra izan ezik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko betebeharrari buruzkoa.

b Laguntzen azken hartzaileak pertsona juridikoak badira, eskabidean berariaz egiaztatu edo adierazi beharko dute behar bezala eratuta daudela, aplikatzekoa zaien araudiaren arabera. Berezko nortasun juridikorik ez duten erakundeen kasuan, jabeen erkidegoetan izan ezik, eskabidean eta emakida-ebazpenean berariaz adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, ahalorde askietsiekin..

c Azken hartzaileak pertsona fisikoak edo hainbat pertsona fisikok osatutako bizikidetza-unitateak badira, diru-sarreren zehaztapenari buruzko beharrezko informazioa aurkeztu beharko dute, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) zerga-ziurtagiriaren bidez.

d Azken hartzaileek berehala jakinarazi beharko diote izapidetze hori egiten ari den edo laguntza eman dien Udalari, baita eskaera izapidetzen ari den bitartean ere, aitorpen hori eragin edo eragin lezakeen edozein baldintza aldatzen bada eta horrek laguntzarako eskubidea galtzea ekar badezake. Aldaketa horiek ez jakinaraztea arrazoi nahikoa izango da bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultzeko espediente bat hasteko.

e Udalari jakinaraztea, dirulaguntzak ematen dituen administrazioa den aldetik, beste edozein administraziok edo erakunde publikok, estatukoak zein nazioartekoak, emandako dirulaguntzak edo laguntzak, kostu beraren gainfinantzaketan erori gabe.

f Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez zuzenean, Opengela programaren bidez zein 2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planaren bidez Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzen komunikazio-esparruak ezartzen dituen komunikazio-betebeharrak betetzea.

g Jabetza Erregistroan orri-bazterreko ohar bat inskribatzea, jabeen erkidegoak jasotako laguntzetan jabeen erkidegoko osagai bakoitzak duen partaidetzari dagokion zenbatekoa jasotzen duena eta, inter vivos eskualdatuz gero, Udalari itzultzeko betebeharra ezartzen duena, Oinarri hauetako 22. artikuluan adierazitakoaren arabera.

h Jabetza Erregistroan orri-bazterreko ohar bat inskribatzea, gizarte-irizpideagatiko laguntza gisa jasotako laguntzen zenbatekoa jasotzen duena, eta, inter vivos eskualdatuz gero, Udalari itzultzeko betebeharra ezartzen duena, Oinarri hauetako 23. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Programaren laguntzak emateko ezarritako baldintzetako edozein betetzen ez bada, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuetako edozeinetan, jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko prozedura hasiko da dirulaguntza ordaintzen den unetik, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluaren II. kapituluan araututako itzulketa-prozedura aplikatuko da.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

9. Artikulua – BESTE ERAKUNDE ESKU-HARTZAILE BATZUK.

Oinarri hauen ondorioetarako, "beste erakunde esku-hartzaile batzuk" dira Udalak, laguntzak ematen dituen administrazioa den aldetik, eta EJko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzarekin ados jarrita, pertsona fisiko edo juridiko guztiei (pribatuak, publikoak edo mistoak izan) zenbait eskumen ematen dizkien guztiak, hala nola onuradunei bultzada, garapena, izapidetzea, kudeaketa eta laguntza ematea, edo laguntzen helburuak lortzen laguntzen duen beste edozein.

Bereziki, eremu honetan "beste erakunde esku-hartzaile batzuk" dira honako hauek:

a "**Kudeaketa Batzordeak**", Oinarri hauen **12. artikuluan (BATZORDE KUDEATZAILEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK)** adierazitakoaren arabera.

b "**Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoa**", «leihatila bakarra» motako birgaitze-bulego bat ezartzeari buruzkoa.

c "**Donostiako Etxegintza Etxebizitza arloko Enpresa Erakunde Publikoa**": Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikuluak dioenaren arabera, Erakunde Laguntzailea izango da Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko, Udalak eta aipatu Erakundeak sinatuko duten dagokion Lankidetza-hitzarmenean jasotako baldintzetan.

10. Artikulua – BIRGAITUKO DIREN ERAIKINEN BETEKIZUNAK.

Programa honen bidez finantzatu nahi diren eraikinek baldintza hauek bete behar dituzte diruz lagundu daitezkeen jarduketen gauzatzea justifikatzeko:

a. <u>Egin beharreko jardueren proiektua edukitzea.</u>

- Proiektuak eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko azterlan bat barne hartuko du. Azterlan hori, ondoren, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko planean garatuko da, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta honako baldintza hauek beteko dira:

1 Eraikitze-gunean sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik) % 70 (pisuan), gutxienez, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz, hondakinak ordezteko betelanak barne. 21. orrialdea 67tik, Garraio Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa.

2 Operadoreek hondakinen sorrera mugatu beharko dute eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan, EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera, eta eskura dauden teknikarik onenak kontuan hartuta. Gainera, eraispen selektiboa erabiliko dute substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatzeko eta manipulatzeko, eta kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko, materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz. Era berean, eraispena, ahal dela,

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobierno Batzordea eta Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

modu selektiboan egingo dela ezarriko da, eta lehentasuna izango da sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan egitea.

Proiektuak kalitatea kontrolatzeko programa bat izango du, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuan ezarritakoari jarraiki. Programa horretan, gutxienez, honako baldintza hauek jasoko dira esku-hartze berrietarako, modu espezifikoan baina ez esklusiboan:

1 Termografia kualitatiboak egingo dituzte horretarako akreditatutako langileek, esku-hartzearen aurretik eta ondoren.

2 Trakzio- eta sostengu-saiakuntzak egingo dira erabiliko den fatxada-isolamenduaren euskarrian (SATE edo fatxada aireztatua). Isolamendu-sistemak eta hura obran jartzeak erabilitako produktuaren edo sistemaren fabrikatzaileak emandako egokitasun-ziurtagiria izan beharko dute.

3 Arotzeriek eta beirek airearekiko iragazkortasunaren, urarekiko estankotasunaren eta haize-kargaren kontrako erresistentziaren saiakuntzak izan beharko dituzte, eta haien ezaugarriei, emaitzei eta transmitantziari buruzko ziurtagiriak izan beharko dituzte.

b. Eraikinen eta eraikuntza-tekniken diseinuak

Diseinuek eta teknikek zirkularitatea sustatuko dute eta, bereziki, ISO 20887ri edo eraikinen desmuntatze-gaitasuna edo moldakortasuna ebaluatzeko beste arauei dagokienez, bitartekoen erabileran efizienteagoak, moldakorragoak, malguagoak eta berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko desmuntagarriagoak izateko duten diseinua frogatu beharko dute.

c. Amiantoa duten eraikuntza-produktuak kentzea jarduketaren xede den eraikinetik

Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egin beharko du legez baimendutako enpresa batek. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira prozesuan sortutako hondakinak.

Era berean, bizitegi-tipologia kolektiboko eraikinen kasuan, honako hauek bete beharko dira:

1 Sestra gainean eraikitako azaleraren % 50ak, gutxienez, bizitegi-erabilera izatea, beheko solairua edo beheko solairuak kenduta, beste erabilera bateragarri batzuk baditu edo badituzte.

2 Jarduketek kasuan kasuko jabeen erkidegoaren edo erkidegoen adostasuna izan behar dute, behar bezala elkartuta, jabe bakarreko eraikinen kasuan izan ezik, eta dagozkion administrazio-baimena edo -baimenak, nahitaezkoa denean.

11. Artikulua - KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BETEKIZUNAK.

Oinarri hauen arabera emandako laguntzen kudeatzaileek eta onuradunek eta laguntzen xede den jarduerari buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen orok honako hauetan zehaztutakoa bete beharko dute:

- "Euskadiko ikusizko nortasunaren eskuliburua"

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Opengela programaren "Erakunde-nortasunaren eskuliburua"

Halaber, obrak irauten duen bitartean, aldi baterako kartel bat instalatu eta mantendu beharko da, jendeak ikusteko moduko leku batean, proiektuaren kokalekuan, ahal dela eraikinaren fatxada estaltzen duen instalazioan edo aldamioan eta, betiere, dagozkion udal-ordenantzen arabera. Kartel horren tamaina nahikoa izango da proiektuaren izenburua eta programaren izena eta irudia argi eta garbi ikusteko eta irakurtzeko, eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza aipatuko du. Kartelaren diseinu grafikoak eta hedapenerako euskarriek EJk arestian aipatu eskuliburuetan zehaztu dituen baldintzak beteko dituzte.

Laguntzen onuradunak EAEko administraziotik jasotako babesaren berri emango dio jendeari. Horretarako, eragiketaren deskribapen labur bat egingo du bere webgunean, halakorik badu, emandako laguntzaren mailarekiko proportzioan, helburuak eta emaitzak adierazita.

Gainera, hala badagokio, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoa bete beharko da, Oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei dagokienez.

12. Artikulua – BATZORDE KUDEATZAILEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK.

Proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren lan tekniko eta obra guztien kontratazioetan eska daitekeen gardentasuna bermatzeko, Kudeaketa Batzordeak eratuko dira. Batzorde horiek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren ordezkari batek, Udalaren edo Donostiako Etxegintza Etxebizitza arloko Enpresa Erakunde Publikoaren ordezkari batek eta Jabeen Erkidegoen ordezkari batek osatuko dituzte.

Komunitateek Birgaitzea efizientearen proiektuaz eta obra-zuzendaritzaz arduratuko den talde teknikoa edo obrak gauzatuko dituen enpresa kontratatu aurretik lehiaketa bat egingo da, gutxienez hiru lizitatzaile onartuta dituela, Batzorde Kudeatzailearen adostasunarekin. Era berean jardungo da beharrezkoa den beste edozein lan esleitzeko, bai eta obrak egiteko ere. Batzorde Kudeatzaileak, salbuespenez, aurreko baldintzak bete gabe Komunitateek egin dituzten kontratazioak balioztatu ditzake, beti ere ez betetze hori ez dakiekeela Komunitateei egotzi justifikatzen bada.

Batzorde Kudeatzaileek, kasu bakoitzean, Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoak profesionalen, talde teknikoen edo enpresa lizitatzaileen eskaintzak ebaluatzeko xedearekin zehaztu dituen baremoak balioztatuko dituzte. Jarraian, baremo horiek proiektua idazteko, obra-zuzendaritzako edo obrak gauzatzeko lehiaketa-faseen ostean aplikatzearen ondorioz, Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoak (aurrerantzean, HKBT) dagokion lan bakoitzaren Esleipen Proposamenaren Txostena egingo du, Batzorde Kudeatzaileak balioztatuko duena.

Kasuren batean zalantzak eta/edo desadostasunak sortzen badira baremoa aplikatzearen emaitzak interpretatzean edo esleipen-proposamenaren txostena idaztean, Batzorde Kudeatzailearen boto gehienak lortzen dituen lizitatzailearen alde erabakiko da, ordezkatzen dituzten erakundeen edo erkidegoen ekarpen ekonomikoen arabera haztatuta.

Esleipenaren azken proposamena onartu eta berretsi egin beharko da, oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak eskuratu nahi dituen Jabeen Erkidego bakoitzeko organo eskudunaren aldetik. Jabeen Komunitateak berrespen eta onespen hori egiten ez badu, edo

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

onesten duen kontratazio-akordioa Batzorde Kudeatzaileak balioztatu duen proposamena ez bada, Jabeen Erkidegoak ezin izango ditu oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak eskuratu, eta aurretik jasotako laguntza guztiak itzuli beharko ditu, salbu eta Batzorde Kudeatzailearen iritziz proposamenaren desbideratze hori behar bezala egiaztatzen bada.

III. KAPITULUA. OINARRI HAUETATIK DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK

13. Artikulua – DEITUTAKO DIRULAGUNTZEN JATORRIA

Oro har, dirulaguntza hauek emateko muga izango da indarrean dagoen aurrekontuan gaitutako kontu-saila, Oinarri hauetako 5. artikuluan adierazitakoa.

Oinarri hauek arautzen dituzte beren xede diren laguntza ekonomikoak izapidetzeko eta esleitzeko baldintzak, 6.500.000 euroko gehieneko zenbatekora arte. Laguntzen xedea izango dira Oinarri hauetako 4. artikuluan eskaturiko eta aurreikusitako jarduketak. 853/2021 Errege Dekretuaren 1. Programaren kargura ematen diren birgaitze energetikorako horiek eskuratzeko aukera balego, programa horri dagokion laguntzek lehentasuna izango dute, hauen gainetik.

14. Artikulua – OHAR OROKORRAK

Laguntzen gehieneko zenbatekoa garatuko diren jarduketen guztizko kostua kontuan hartuta zehaztuko da, hurrengo puntuetan ezarritako zenbatekoak finkatzeko irizpideen arabera. Horrenbestez, diruz lagun daitezkeen jarduketen artean sartu ahal izango dira jarduera bakoitza garatzeko beharrezkoak diren gastuak, hala nola:

- Osorik edo zati batean berari egotz dakizkiokeen obren zuzeneko eta zeharkako kostuak.
- Kalitate-kontrolari, hondakinak erretiratzeari, garraiatzeari eta kudeatzeari, erabilitako bitarteko osagarriei eta abarri buruzkoak.
- Jarduketen garapenari datxekion kudeaketa eta lotutako gastuak.
- Esku hartzen duten profesionalen ordainsariak, proiektuak idaztearenak eta obra-zuzendaritzarenak, ziurtagiri eta txosten teknikoenak eta eraikineko etxebizitzen monitorizazioarenak.
- Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua eta, hala badagokio, EIT egitea. Eraikinaren Liburuak bat etorri beharko du "Birgaitzeko dagoen eraikinaren liburua egiteko gidaliburua. Jarraibideak, gomendioak, aholkuak eta adibideak" delakoarekin, MITMAko Hiri Agendaren eta Etxebizitzaren Idazkaritza Nagusiak 2021eko azaroan egindako 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskina justifikatzeko.
- Administrazio-izapidetzearen ondoriozkoak.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Okupatzaileei aldi baterako beste bizileku bat emateko jarduketak, gizarte-laguntzako jarduketak eta bidezko diren jarduketei lotutako antzeko beste batzuk.

- BEZ edo zeharkako zerga baliokidea, baldin eta osorik edo zati batean berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

Ez dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko lizentziei, tasei eta BEZaz bestelako zerga edo zergei dagozkienak.

Aurrekontu orokor bakoitza zatituko den aurrekontu partzialetako bakoitzean zuzeneko eta zeharkako kostuen banaketari buruzko aholkularitza eta jarraibideak emango dizkie Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoak proiektuak idazten dituzten talde teknikoei, jarraian adierazten diren dirulaguntza moten arabera, Oinarri hauen 4. artikuluaren 01. Taulan zehaztutako edukiari eta Kapituluen banaketari jarraiki.

Atal honetako hurrengo puntuetan zerrendatutako jarduketa guztietarako laguntzen eskabideetan, jarduketen kostuaren gaineko ehunekoa eta zenbatekoa adieraziko dira. Era berean, HKBTk, leihatila bakarraren funtzioan, laguntzen izapidetzea koordinatuko du helburu berarekin bateragarriak izan daitezkeen beste edozeinekin. HKBTk dokumentu bat egingo du eskatutako edo onuradunek eskatu beharreko laguntza guztien zerrenda, ehunekoa eta zenbatekoak jasoko dituena, finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko eta eman litezkeen dirulaguntzen multzoak jarduera horien kostuaren % 100 gainditzen ez duela ziurtatzeko, gainfinantzaketa saihestuz.

15. Artikulua – LAGUNTZA GEHIGARRIAK KALTEBERATASUN EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDEN PERTSONA FISIKOENTZAT EDO BIZIKIDETZA-UNITATEENTZAT.

Oinarri hauek oinarri hartuz laguntza horien esleitzea eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzen lagunduko die Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoak partikularrei eta jabeen erkidegoei.

Onuradunak pertsona fisikoak direnean edo bizikidetza-unitatean diru-sarrerak dituzten hainbat pertsona fisiko bizi direnean, diru-sarreren zehaztapena apartatu honetan ezarritakoaren arabera kalkulatuko da, kalteberatasun ekonomikoko arrazoiengatiko laguntzaren osagarria lortzeko balorazioa egiteko.

Bizikidetza-unitate kalteberen kasuan etxebizitza bakoitzeko gehieneko zenbatekoaren gainean eman beharreko laguntza handitzeko eskaera aparteko espediente batean egingo da pertsona edo bizikidetza-unitate onuradun bakoitzarentzat. Eskabide horretan, jarduketen kostuaren eta zenbatekoaren gaineko ehunekoa adieraziko da. Era berean, HKBTk, onuradunei laguntzeko eginkizunean, laguntzen izapideak koordinatuko ditu helburu berarekin bateragarriak diren beste laguntza batzuekin.

Zehaztutako bizitegi-ingurunean sartutako etxebizitzetako jabe, gozamendun edo bizikidetza-unitateren batean kalteberatasun ekonomikoko egoerak identifikatzen badira, laguntza gehigarri bat eman ahal izango da, bizikidetza-unitate horri egotz dakiokeen jarduketaren kostuaren % 100era artekoa, baina, 19. artikuluak jasotzen duen salbuespenarekin, ezingo ditu gainditu 02., 03. eta 04. tauletan kontzeptu bakoitzerako aurreikusitako «Kalteberentzako gehieneko laguntza (% 100)» zutabean adierazitako zenbatekoak.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Pertsona edo bizikidetza-unitate bakoitzerako, jarduketekin lotutako guztizko laguntzen «Ehunekoa» eta/edo «Gehieneko zenbatekoa» zehaztuko da, honako hauen arabera:

- Lehen mailako energia berriztaezinaren kontsumoan eraikinean lortutako aurrezpen-maila.
- Pertsona fisikoaren edo bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinak. Honako hauek hartzen dira diru-sarrera gordintzat: PFEZaren zerga-oinarriak, oinarri orokorra eta aurrezki-oinarria, lan-etekinak eta atxikipenak, Foru Aldundiak jaulkitakoak; edo, bestela, langabezia-prestazioak, pentsioak edo bestelako diru-sarrerak, Gizarte Segurantzak edo beste erakunde eskudun batzuek ordainduak.
- Bizikidetza-unitateko (BU) kideen kopurua.

Honela ezarriko da "Ehuneko" eta/edo "Gehieneko zenbateko" hori:

a) Energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurrezpena lortzen den kasuetan, **ΔCep,nren ≥% 30 eta < % 45**, eta 37.850,00 € gehieneko laguntza erabilgarriaren % 100 direla kontuan hartuta, Ehunekoen eta Gehieneko guztizko zenbatekoen ondoko 2. Taula aplikatuko da:

% AYUDAS, IMPORTE MAXIMO E INCREMENTO SOBRE CUANTÍA MÁXIMA DE LA AYUDA PRINCIPAL SEGÚN NIVELES DE RENTA Y MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL 30% ≤ ΔCep,nrenv < 45%									
INGRESOS BRUTOS	Miembros Unidad Convivencial								
	1			2			3 o Más		
	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal
Menos de 15000 €	100%	37.850	22.710	100%	37.850	22.710	100%	37.850	22.710
15.000 €-18.000 €	80%	30.280	15.140	100%	37.850	22.710	100%	37.850	22.710
18.000 €-25.000 €	60%	22.710	7.570	70%	26.495	11.355	100%	37.850	22.710
≥25.000 €	40%	15.140	0	40%	15.140	0	40%	15.140	0

02. Taula

b) Energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurrezpena lortzen den kasuetan, **ΔCep,nren ≥% 45 eta < % 60**, eta 41.697,00 € gehieneko laguntza erabilgarriaren % 100 direla kontuan hartuta, Ehunekoen eta Gehieneko guztizko zenbatekoen ondoko 3. Taula aplikatuko da:

% AYUDAS, IMPORTE MAXIMO E INCREMENTO SOBRE CUANTÍA MÁXIMA DE LA AYUDA PRINCIPAL SEGÚN NIVELES DE RENTA Y MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL 45% ≤ ΔCep,nrenv < 60%									
INGRESOS BRUTOS	Miembros Unidad Convivencial								
	1			2			3 o Más		
	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal
Menos de 15000 €	100%	41.697	14.594	100%	41.697	14.594	100%	41.697	14.594
15.000 €-18.000 €	88%	36.694	9.590	100%	41.697	14.594	100%	41.697	14.594
18.000 €-25.000 €	77%	32.107	5.004	83%	34.609	7.505	100%	41.697	14.594
≥25.000 €	65%	27.103	0	65%	27.103	0	65%	27.103	0

03. Taula

c) Energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurrezpena lortzen den kasuetan, **ΔCep,nren ≥% 60**, eta 50.000,00 € gehieneko laguntza erabilgarriaren % 100 direla

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

kontuan hartuta, Ehunekoen eta Gehieneko guztizko zenbatekoen ondoko 4. Taula aplikatuko da:

% AYUDAS, IMPORTE MAXIMO E INCREMENTO SOBRE CUANTÍA MÁXIMA DE LA AYUDA PRINCIPAL SEGÚN NIVELES DE RENTA Y MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL ΔCep,nrenv ≥ 60%									
INGRESOS BRUTOS	Miembros Unidad Convivencial								
	1			2			3 o Más		
	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal	%	Máximo	Incremento sobre cuantía máxima de la ayuda principal
Menos de 15000 €	100%	50.000	15.000	100%	50.000	15.000	100%	50.000	15.000
15.000 €-18.000 €	90%	45.000	10.000	100%	50.000	15.000	100%	50.000	15.000
18.000 €-25.000 €	80%	40.000	5.000	85%	42.500	7.500	100%	50.000	15.000
≥25.000 €	70%	35.000		70%	35.000	0	70%	35.000	0

04. Taula

Laguntza horiek dirulaguntzatzat hartuko dira, eta 30 urteko gehieneko epean itzuli beharko dira etxebizitza inter vivos eskualdatzen denean, baldin eta gehieneko epe hori bete baino lehen eskualdatzen bada, Oinarri hauetako 23. artikuluan adierazten den bezala.

IV. KAPITULUA. JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK

16. Artikulua – AURRETIAZKO AZTERLANAK ETA PROIEKTU TEKNIKOAK.

Oinarri hauek oinarri hartuz laguntza horien esleitzea eskatzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko behar den dokumentazioa prestatzen lagunduko die Hurbileko Kudeaketako Bulego Teknikoak partikularrei.

Aurretiazko azterlan eta proiektu tekniko horietarako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

a) Laguntzen xede den birgaitze-jarduketa integrala amaitu arte gauzatuko duten Erkidegoen kasurako:

1 Energia-auditoretzetarako eta aurretiazko aurreproiektuetarako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa % 100ekoa izango da, 3.500 €-ko mugarekin (BEZ barne) energia-auditoretzetan, eta 15.700 €-koa (BEZ barne) aurreproiektuetan. Aipatu aurretiazko aurreproiektuetan jaso beharko da aurreikusi den birgaitze-jarduketa integral horren gauzatzeak ekar dezakeen zerrenda baloratu bat. Horren egiturak 4. artikuluko 01. Taulan jasotako kapituluei eta azpikapituluei jarraituko die. Era berean, eta energia-eskaera murrizteko xedearekin proposaturiko jarduketei dagokienez, ondoko tarteen arteko energia-murrizketa bat lortzeari loturiko kostuen xehakapen bereizia jasoko da: % 30 eta % 45 bitarteko energia-eskaeraren murriztea; % 45-60; eta % 60 edo gehiagokoa.

2 Eraikinaren Txosten Teknikoetarako (ETT) edo birgaitzeko dagoen eraikinaren liburuetarako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa:

a 20 etxebizitza arteko familia bakarreko etxebizitzen eta familia anitzeko eraikinen kasuan: 700 euro, gehi 60 euro etxebizitza bakoitzeko.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

b 20 etxebizitza baino gehiagoko familia anitzeko eraikinen kasuan: 1.100 euro, gehi 40 euro etxebizitza bakoitzeko; dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 3.500 eurokoa izango da.

c Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa, Eraikinaren Ebaluazio Txostena edo antzeko dokumenturik ez badago, laguntza % 50eraino handitu ahal izango da.

3 Eraikinen birgaitze integralerako proiektu teknikoak:

a Familia anitzeko eraikinetan: 8.000 euro, gehi 1.500 euro etxebizitza bakoitzeko. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 40.000 eurokoa izango da

4 Eraikinen birgaitze integralerako obra-zuzendaritza fakultatiboa:

a Obra-zuzendaritzarako: 8.000 euro, gehi 1.500 euro etxebizitza bakoitzeko.

b Obra-gauzatzeko zuzendaritzarako: 8.000 euro, gehi 1.500 euro etxebizitza bakoitzeko.

c Segurtasunaren eta Osasunaren arloko Koordinaziorako (proiektuan eta obran): 100 euro etxebizitza bakoitzeko.

5 Laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu kostu osoa, zergak alde batera utzita. Halere, BEZa edo zeharkako zerga baliokidea hautagarritzat jo ahalko dira, baldin eta ezin badira osorik edo zati batean berreskuratu edo konpentsatu.

6 Diruz lagundu ahal izango dira 2022ko martxoaren 29a eta gero idatzitako dokumentuak, baldin eta HKBTk onesten edo onetsi baditu eta Batzorde Kudeatzaileak balioztatu baditu. Dokumentuak idazteko data egiaztatzeko, dirulaguntzaren xede den dokumentazioa erregistro ofizialetan sartzen den lehen eguna hartuko da kontuan.

b) Aurreikusitako birgaitze-jarduketa integrala amaitu ez duten Erkidegoen kasurako:

Kasu hauetan, aurreko a).1 epigrafean aipatu den baloratutako aurretiazko aurreproiektuaren kostuaren % 70 lagunduko da diruz. Proiektu horren kostuak ezingo du, inola ere, 15.700 euroko gehieneko muga ekonomikoa gainditu.

17. Artikulua – JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK, AMIANTO-HONDAKINAK KENDU, MANIPULATU, GARRAIATU ETA KUDEATZEKO.

Oinarri hauek oinarri hartuz laguntza horien esleitzea eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzen lagunduko die HKBTk partikularrei.

Amianto-hondakinak erretiratzera, manipulatzera, garraiatzera eta kudeatzera bideratutako jarduketa guztiak barne hartuko dira, betiere enpresa espezializatuek egiten badituzte, Oinarri hauetako 4. artikuluaren 6. puntuan adierazten den bezala.

Amiantoa duten osagaiak kendu behar diren kasuetan, laguntzaren gehieneko zenbatekoa handitu ahal izango da, amianto-hondakinak enpresa baimenduen bidez kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzeko kostuei dagokien zenbatekoan, gehienez ere 1.000 euro etxebizitza bakoitzeko edo 12.000 euro birgaitu beharreko eraikin bakoitzeko.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

18. Artikulua – JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK, ERAIKINEKO ENERGIA PRIMARIO BERRIZTAEZINAREN KONTSUMOA MURRIZTEKO, ETXEBIZITZEN IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ETA BESTE JARDUERA BATZUETARAKO.

Oinarri hauek oinarri hartuz laguntza horien esleitzea eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzen lagunduko die HKBTk partikularrei.

Berokuntzaren eta hozte-sistemaren urteko energia-eskari orokorra eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa murrizteari dagokionez, biak ere ziurtagiri energetikoari buruzkoak diren heinean, Oinarri hauetako 4. artikuluaren d) apartatuan deskribatutako horiek.

Irisgarritasunari dagokionez, eraikinaren eta bere etxebizitzen irisgarritasuna hobetzea helburu duten jarduketa guztiak aintzat hartuko dira, Oinarri hauetako 4. artikuluaren c) apartatuan xedatutakoari jarraiki.

Beste jarduketa batzuei dagokienez, jarraian adierazitako jarduketa guztiak hartuko dira aintzat:

a Eraikinaren Txosten Teknikoak agintzen eta gomendatzen dituen jarduketak,

b Eraikinaren eta bere etxebizitzen bizigarritasun-baldintzak bermatzea xede dituzten horiek; Oinarri hauetako 4. artikuluan jaso dira,

c Aurreko artikuluetan aurreikusitako jarduketetan sartzen ez diren (osotasunean zein partzialki) zuzeneko edo zeharkako obra-kostuak. Horien artean daude: bitarteko osagarriak, kalitate-kontrola, arriskutsuak ez diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kentzea, maneiatzea, garraiatzea eta kudeaketa eta proposaturiko helburuak lortzeko beharrezkoa den beste edozein kostu; eta

d Suteen aurkako babesa areagotzea xede duten jarduketak.

Kontzeptu zehatz hauen eskutik eraikin bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak, 19. artikuluan xedatutako salbuespenarekin, ezin izango ditu muga hauek gainditu:

a 5. taulan ezarritako gehieneko ehunekoa eta diruz lagundu daitezkeen jarduketen kostua biderkatuz lortzen den zenbatekoa.

b 5. taulan etxebizitza bakoitzeko ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoa eraikineko etxebizitza kopuruarekin biderkatuta lortzen den zenbatekoa, gehi, hala badagokio, merkataritza-lokalen sestra gainean edo etxebizitzaz bestelako erabileretan eraikitako azaleraren metro karratu bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa, jarduketaren bidez lortutako energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurreztutako mailaren arabera. Merkataritza-erabilerako edo beste erabilera batzuetako sestra gaineko metro karratu bakoitzeko ezarritako zenbatekoa zenbatu ahal izateko, kasuan kasuko lursailek jarduketaren exekuzio-kostuetan parte hartu beharko dute.

Eraikinean lortutako energia-aurrezpena	Laguntzaren gehieneko portzentajea	Etxebizitza			Merkataritza lokalak edo bestelako erabilerak
		Etxebizitza	Gizarte-	Gizarte-irizpidea	Laguntzaren

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

		bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa	irizpideari loturiko laguntzaren gehieneko zenbatekoa etxebizitza bakoitzeko	duen etxebizitza bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoaren gaineko gehikuntza	gehieneko zenbatekoa m2-ko
% 30 ≤ $\Delta C_{ep,nrenv}$ < 45%	% 40	15.140 €	37.850 €	22.710 €	72 €
% 45 ≤ $\Delta C_{ep,nrenv}$ < % 60	% 65	27.103 €	41.697 €	14.594 €	130 €
ΔCep,nrenv ≥ % 60	% 70	35.000 €	50.000 €	15.000 €	192 €

5. TAULA

Adierazitako laguntzen gehieneko zenbatekoak zehazteko, Oinarri hauetako 14. artikuluan behar bezala egiaztatutako eta adierazitako kostu guztiak hartu ahal izango dira kontuan, BEZ edo zeharkako zerga baliokidea barne, osorik edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu ezin direnean.

19. Artikulua – DIRULAGUNTZAK HANDITZEKO AUKERA.

Eskariak aurkezteko epea amaituta dirulaguntzarako aurreikusi den gehieneko zenbatekoa agortu ez bada, Udalak hasiera batean esleitutako laguntzak handitzeko aukera izango du Oinarri hauetako 16., 17., 18. eta 19. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, epe barruan jasotako eta onartutako eskarien artean, kreditua agortu arte eta beti ere kostuaren % 100a gaindituko ez dela bermatuko bada, gainfinantzaketarik ez dagoela ziurtatuz.
Laguntzak berregokitzeko irizpideak ondokoak izango lirateke:

1) Hasteko, kalteberatasun ekonomikoan dauden pertsona fisikoek edo bizikidetza-unitateek jasoko duten zenbatekoa handituko da. Aipatuak Oinarri hauetako 16. artikuluan definituta daude. Zehazki, soberakin ekonomikoa aplikatuko da, kalteberatasun ekonomikoan dagoen bizikidetza-unitateko kideek Oinarri hauetako 16. artikuluaren 2. eta 3. tauletan definitutako diru-sarreren arabera zehaztuta duten mugatik maila bat gorago dagoen portzentajea eskura dezaten. Kalkulua diru-sarrera baxuenetik altuenera egingo da, eta horrela hurrenez hurren, kostuaren % 100aren gehieneko mugara iritsi arte.

2) Aurreko irizpidea aplikatu ostean Oinarri hauetako xede diren dirulaguntzetarako gehieneko kreditua agortua ez balego, soberakina aplikatuko zaie % 60ko edo handiagoko energia-aurrezpena ekarri duen birgaitze-jarduketa integrala burutu duten komunitateei. Honela, eta Jabeen Erkidego ezberdinen artean, etxebizitza bakoitzeko inbertitutako eta birgaitze-jarduketaren ondoriozko ratioa berdinduko da eta berregokitze-prozesua etxebizitza bakoitzeko ratioaren inbertsiorik handiena egin duen Erkidegotik hasiko da bere atzetik dagoen Erkidegoarekin parekatu ahal izateko: eta horrela hurrenez hurren, kostuaren % 100aren gehieneko mugara iritsi arte.

3) Azkenik, eta aurreko bi irizpideak aplikatu ostean krediturik balego oraindik, balizko soberakin hori energia-aurrezpenari dagokionez ondoko mailetan (%45-60 eta %30-45,

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

hurrenez hurren) dauden Erkidegoen mesederako aplikatuko da. Aurreko idatz-zatian adierazitako homogeneizazio-irizpide berdinak aplikatuko zaizkie.

V. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK, JARRAIPENA ETA ITZULKETA

20. Artikulua – LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA GUZTIEN PIGNORAZIOA EDO KOBRANTZAREN LAGAPENA.

Nolanahi ere, jarduten duten erkidego edo mankomunitateek eraikinaren birgaitze efizienterako soilik erabiliko den kontu korronte esklusibo bat irekiko dute finantza-erakunde batean, xede horretarako berariaz deitutako ezohiko batzar batean indarreko Jabetza Horizontaleko Legean aurreikusitako gehiengoz onartu ondoren.

Beren eraikinaren birgaitze efizienterako edozein motatako laguntzen onuradunek kontu hori izango dute emandako laguntzen sarrera-kontu gisa, bai dagokien komunitateari edo mankomunitateari emandakoak, bai pertsona fisikoei edo bizikidetza-unitateari emandakoak.

Onuradunak finantzaketa lortzen badu arestian adierazitako obrak edo jarduketak egiteko, finantzaketa jaso duten finantza-erakundeen alde jasotako laguntzak edo dirulaguntzak pignoratu edo kobratzeko eskubidea laga ahal izango da.

Aurreko ondorioetarako, nahikoa izango da dirulaguntzak jasotzen dituzten finantza-erakundeek lagapenaren edo pignorazioaren berri ematea Administrazio emaileari, eta jakinarazpen horretan adieraztea zer kontutan ordaindu behar dituen administrazio horrek laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoak, modu ezeztaezinean, hura eratutzat har dadin, harik eta finantza-erakunde hartzekodunak finantzaketa ezereztu dela berresten duen arte.

21. Artikulua – JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ezarritako baldintzak betetzen direla eta Oinarri hauetan araututako laguntzak emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta hura garatzeko Erregelamenduaren 72. eta 75. artikuluetan ezarritako prozedurak erabiliko dira.
Erakunde onuradunek honako hauek bete beharko dituzte: dirulaguntza eman duen administrazioak egindako egiaztapen-jarduketak, Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontroleko jarduketak, hala badagokio, eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak.

22. Artikulua – JABEEN ERKIDEGOARI ELEMENTU PRIBATIBOEN INTER VIVOS BORONDATEZKO XEDAPENEZ EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA.

Emandako laguntzak itzuliko direla eta birgaitze-proiektua garatzean ekintza publikoak sortutako gainbalioetan Administrazioak parte hartuko duela bermatzeko, Jabeen Erkidegoak elementu pribatiboengatik (Jabeen Erkidegoan duen partaidetza-kuotaren arabera) jasotako

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

dirulaguntzen zati proportzionala Udalari itzultzeko betebeharra ezartzen da, diruz lagundutako eraikina osatzen duten etxebizitzak edo higiezinetako elementuak inter vivos eskualdatuz gero.

Birgaitzeko dirulaguntzen xede diren higiezinak ezin izango dira inter vivos borondatez eskuragarri egon 10 urteko epean, obra-amaiera ziurtatzen denetik zenbatzen hasita, saltzaileak aldez aurretik eskualdatzen den elementuari egotz dakizkiokeen jasotako laguntzak itzuli dituela egiaztatzen ez badu. Laguntza horiek itzultzeko unean eguneratuko dira, 06. Taulan ("Itzulera-oinarria") jasotako ehunekoen arabera.

Arestian aipatutako ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea ezkontza-banantzeen, dibortzioen edo izatezko bikotearen hausturen eta/edo bizikidetza-unitatearen hausturen ondorioz, lehen mailako odolkidetasunez lotutako kideen kasuan.

Etxebizitza eta lokalen titularrek dirulaguntza eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan. Bertan, administrazio-agiri hori ikusi ondoren, hipoteka-legeriaren arabera egokia den jabariaren erabilera-mugapenaren erregistro-idazpena egingo da.

Itzulketa hori obrak gauzatzeko prozesuan zehar gertatzen diren inter vivos transmisioen kasuan ere gauzatu beharko da.

Jasotako laguntza irizpide hauen arabera itzuliko da:

- Etxebizitzen titular diren pertsona juridikoek eta beren konturako jarduerari atxikita ez dauden lokalen titular diren pertsona juridikoek dirulaguntza eman izanaren ziurtagiriaren balioaren % 100 itzuli beharko dute, bai eskualdatzea proiektua gauzatu bitartean egiten bada (laguntza emateko behin-behineko ebazpenaren ondoren), bai obren amaierako ziurtagiria eman ondorengo hamar urteetan egiten bada.

- Etxebizitza eta lokalen gainerako titularrek, inter vivos eskualdatuz gero, itzuli egin beharko dute ondoko 06. Taulan ("Itzulera-oinarria") adierazten den dirulaguntza eman izanaren ziurtagiriaren balioaren ehunekoa:

06. Taula. Itzulera-oinarria

FECHA de TRANSMISIÓN	PORCENTAJE DE RETORNO
Durante la ejecución de la obra o el primer año	100
Durante el segundo año	91
Durante el tercer año	82
Durante el cuarto año	73
Durante el quinto año	63
Durante el sexto año	53
Durante el séptimo año	43
Durante el octavo año	33
Durante el noveno año	22
Durante el décimo año	11
A partir del décimo año	0

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, jabeen erkidegoari emandako laguntza hartuko da oinarritzat, eta horri eskualdatutako elementuaren erkidegoko partaidetza-kuota eta iragandako denborari dagokion itzulera-taularen ehunekoa aplikatuko zaizkio.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta bide exekutibotik eskatu ahalko dira.

23. Artikulua – GIZARTE-IRIZPIDEAGATIKO LAGUNTZAK ITZULTZEA.

Gizarte-irizpidearen eskutik emandako laguntzak itzuliko direla bermatzeko eta Administrazioak birgaitze-proiektuaren garapenean ekintza publikoak sortutako gainbalioetan parte hartuko duela bermatzeko, Udalari itzuli behar zaio gizarte-irizpidez jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, etxebizitza inter vivos eskualdatzen denean. Itzulera gertatzeko gehieneko epea hogeita hamar (30) urtekoa da, obraren azken ziurtapena egiten den egunetik hasita, artikulu honetan jasotako 07. Taulan jasotako itzulera-ehunekoei jarraiki.

Etxebizitzen titularrek gizarte-irizpideagatiko dirulaguntza eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan. Bertan, administrazio-agiri hori ikusi ondoren, hipoteka-legeriaren arabera egokia den jabariaren erabilera-mugapenaren erregistro-idazpena egingo da.

Ezin izango da etxebizitza inter vivos transmititu saltzaileak eskualdatzen den elementuari egozten ahal zaizkion irizpide sozialaren kontzeptuagatik jasotako laguntzak itzuli dituela egiaztatu ezean.

Arestian aipatutako ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea ezkontza-banantzeen, dibortzioen edo izatezko bikotearen hausturen eta/edo bizikidetza-unitatearen hausturen ondorioz, lehen mailako odolkidetasunez lotutako kideen kasuan.

07. Taula. Itzulera-oinarria

ESKUALDATZE-DATA	ITZULERA-EHUNEKOA
Obra egin bitartean edo lehenengo urtean	% 100,00
Bigarren urtean	% 96,67
Hirugarren urtean	% 93,33
Laugarren urtean	% 90,00
Bosgarren urtean	% 86,67
Seigarren urtean	% 83,33
Zazpigarren urtean	% 80,00
Zortzigarren urtean	% 76,67
Bederatzigarren urtean	% 73,33
Hamargarren urtean	% 70,00

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Hamaikagarren urtean	% 66,67
Hamabigarren urtean	% 63,33
Hamahirugarren urtean	% 60,00
Hamalaugarren urtean	% 56,67
Hamabosgarren urtean	% 53,33
Hamaseigarren urtean	% 50,00
Hamazazpigarren urtean	% 46,67
Hemezortzigarren urtean	% 43,33
Hemeretzigarren urtean	40,00%
Hogeigarren urtean	% 36,67%
Hogeita batgarren	33,33%
Hogeita bigarren urtean	30,00%
Hogeita hirugarren urtean	26,67%
Hogeita laugarren urtean	23,33%
Hogeita bosgarren urtean	20,00%
Hogeita seigarren urtean	16,67%
Hogeita zazpigarren urtean	13,33%
Hogeita zortzigarren urtean	10,00%
Hogeita bederatzigarren urtean	6,67%
Hogeita hamargarren urtean	3,33%
Hogeita hamargarren urtetik aurrera	0,00%

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, jabe-komunitateari emandako laguntza hartuko da oinarritzat, eta horri iragandako denborari dagokion itzulera-taularen ehunekoa aplikatuko zaio.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta bide exekutibotik eskatu ahalko dira.

24. Artikulua – DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ESLEIPEN EZEGOKIEN KASUAN

Esleipen Proposameneko Txostenean adierazitakoa ez den beste edozein lizitatzaileri adjudikatzeak, Oinarri hauetako 12. artikuluan azaldu bezala, prozedura bertan behera uztea ekar dezake, eta administrazioek ordura arte ordaindutako dirulaguntza guztiak itzul tzeko eskatzea, aurreko apartatuan adierazi bezala.

VI. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN PROZEDURA, IZAPIDETZEA ETA ORDAINKETA

25. Artikulua – ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA AURKEZPENA.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Eskabideak deialdia egin duen organoari zuzenduko zaizkio eta pertsona onuradunek edo bere ordezkariak sinatu beharko dituzte. Eskabideak eta erantsitako dokumentazioa aurkezteko epeak hiru fase izango ditu:

Lehen Fasea:

- 2023ko ekainaren 30ean amaituko den lehen fasean, Erkidegoaren legezko ordezkariak eskari-idazkia aurkeztuko du, oinarri hauetan aurreikusitako hiri-birgaitzeko jarduketa-programan parte hartzeko, Oinarri hauetako 31. artikuluak aipatu faserako zehazten duen dokumentazioarekin batera. Eskari horrek bigarren faserako erreferentzia-xede den dokumentazioa 2023ko irailaren 29a baino lehen aurkezteko konpromisoa dakar.

Bigarren Fasea:

- Bigarren fasea 2023ko irailaren 29an amaituko da. Bertan, lehen fasean eskaturiko programan parte hartzeko eskari-idazkia aurkeztu duten Jabeen Erkidegoek, Oinarri hauetako 31. artikuluak aipatu faserako zehazten duen dokumentazioarekin batera, aurreproiektu bat aurkeztuko dute. Erkidegoak egin nahi duen birgaitze-integral osoaren kostuaren zerrenda baloratua jasoko du aurreproiektuak, 4. Artikuluko 01. Taulako kapituluei eta azpikapituluei jarraiki egituratua egongo dena. Energia-eskaria murrizteko proposatu diren jarduketei dagokienez, ondoko aurrezpen-tarteetako energia-murrizte bat lortzeari loturiko kostuak bereizita xehakatuko dira: % 30 eta % 45 bitarteko energia-eskaeraren murriztea; % 45-60; eta % 60 edo gehiagokoa.

Hirugarren Fasea:

- Hirugarren fasea 2023ko azaroaren 30ean amaituko da. Bertan, lehen eta bigarren faseetarako dokumentazioa aurkeztu duten Jabeen Erkidegoek dirulaguntzaren esleipen-eskaria aurkeztuko dute. Horrekin batera Oinarri hauetako 31. artikuluan aipatu fase zehatzerako zehaztu den dokumentazio guztia aurkeztuko dute, bai eta obra egiteko Udal lizentziarako eskaria ere.

1. Eskariak telematiko aurkeztuko dira, Etxebizitza arloko Enpresa Erakunde Publikoaren egoitza elektronikoan. Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonek aurrez aurre aurkez dezakete beren eskaria aipatu erakundeak Donostiako San Martzial kalea, 2 helbidean duen bulegoan, bulego-orduetan. Eskaria telematikoki egitera behartuta dauden pertsona fisikoek edo juridikoek bide hori erabiliko dute bakarrik.

2. Eskariak dagokion jarduketen titularrak aurkeztuko dituzte, edo laguntzen Pertsona Onuradunek; edo beren legezko ordezkariek.

3. Eraikinaren jabe bakarrak edo jabe-komunitatea ordezkatzen duenak tramitatu beharko ditu laguntzak, jabetza horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak ezarritako moduan; edo, bestela, komunitatearen ordezkari batek, behar bezala akreditatuta. Era berean, birgaitze-eragiketetan edozein tituluren bidez parte hartzen duten etxebizitza kooperatibak edo enpresa, entitate edo sozietateak ordezkatzen dituenak ere aurkeztu ahalko ditu eskariak.

4. Lehen fasearen xede den parte hartzeko eskari-idazkia Deialdi honen argitaratze-datatik aurrera aurkez daiteke. Eskari horretan, eta bere edukiari dagokionez, interesdunek Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan eta Donostiako Etxegintzaren webgunean

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

eskuragarri duten ereduari jarraituko zaio. Eskariaz gain, aipatu faserako zehaztu den dokumentazio guztia ere aurkeztu beharko da.

5. Bigarren fasean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez (azken aurkezpen-data 2023/09/29a da), 2023ko ekainaren 1etik 2023ko irailaren 29ra arte aurkeztu ahalko da. Aipatu dokumentazioaren zati bat aurkeztuko da interesdunek Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan eta Donostiako Etxegintzaren webgunean eskuragarri dituzten inprimakiak betez.

6. Oinarri hauetako 31. artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin batera, hirugarren fasean aurkeztu beharreko eskabideari dagokionez (2023/11/30a da azken eguna horretarako), 2023ko urriaren 2tik aurrera aurkeztu ahalko da, 2023ko azaroaren 30era arte.

7. Laguntzen eskaeran, berariaz sartu ahal izango da organo eskudunari baimena ematea behar den informazio guztia bildu eta ebazteko, bereziki, baldintzak betetzen direla frogatzeko legez egokia den zerga edo ekonomia arloko informazioa. Jasotako zerga edo ekonomia arloko informazioa ezingo zaie hirugarrenei laga.

   Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteak Oinarri hauek baldintzarik gabe onartzea dakar.

   Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta nahitaezko elkargoko kide izan behar duen jarduera profesionalean diharduten pertsonek bitarteko elektronikoak erabiliz diharduten prozedurako izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte.

   Oinarri hauetako 15. artikuluan partikularren edo bizikidetza unitateen alde ezarritako laguntza eskariak artikulu honetako lehen puntuan deskribatu den bigarren faseko eskabidea aurkeztean aurkeztuko dira. Egoera horretan dauden pertsonek edo, hala badagokio, beren ordezkariek aurkeztuko dituzte.

8. Oinarri hauetan aipatzen diren laguntzen eskatzaileek, era berean, laguntza horiekin bateragarriak diren beste eskaera batzuk aurkez ditzala eskatu ahal izango diote HKBTri, erakunde arduradunekin koordinatuta, horiek izapidetzeko. Eskatzaile horiek kasu bakoitzean erakunde horiek eskatzen duten dokumentazioa aurkeztuko diote HKBTri.

26. Artikulua. AKATSAK EDO OMISIOAK ZUZENTZEA.

1.- Aurkeztutako eskabidean akatsen bat, zehaztasunik eza edo omisioren bat antzemanez gero, modu fede-emailean jakinaraziko zaio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango zaio akatsa edo omisioa zuzentzeko, eta, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, prozeduraren instrukzio-organoak ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan.

2.- Eskabidea formatu ofizialaren arabera aurkezten ez bada edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, emandako zuzenketa epea iragan ondoren, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

27. Artikulua – TRAMITAZIOA, EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Oinarri hauetan aipatzen diren laguntza guztietarako, prozeduraren instrukzioa Donostiako Etxegintza Etxebizitza arloko Enpresa Erakunde Publikoak egingo du, laguntzak kudeatzeko Erakunde Laguntzaile den heinean.

Esleipenaren ebazpena Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zinegotzi Ordezkariari dagokio. Erakunde horrek ematen dituen txostenak oinarri hartuta emango da ebazpena.

Ebazpena jakinarazteko epea hil batekoa izango da, eskaria aurkeztu eta biharamunetik hasita. Epe horretan ebazpenik jaso ezean, eskaera ezetsitzat joko da, espresuki ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe. Emandako ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahalko da, hurrengo atalean ezarritako moduan.

Oinarri hauetan aipatzen ez diren laguntza guztietarako, prozeduraren instrukzioa kasuan kasuko erakunde eskudunean egingo da. HKBTk, leihatila bakarra den aldetik, aurrekoekin koordinatu litzake eta onuradunen izenean eskaerak egin ahalko ditu.

Administrazio-ebazpena baiezkoa bada, honako hauek adierazi beharko dira: pertsona edo erakunde onuradunen izena edo izen soziala eta IFK edo NANa, finantzatutako jarduketa, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzaren zenbatekoa –diruz lagundutako jarduketen arabera eta aurrekontu urtealditan banatuta– eta obrak egiteko epea. Ukatutako eskaeren kasuan, eskatzaileen izena edo sozietatearen izena, IFK, eta ukatzeko arrazoiak jasoko ditu. Nolanahi ere, ebazpenak eskatzaileari jakinaraziko zaizkio.

Onuradun diren pertsonei laguntzak eta dirulaguntzak ematea eta, hala badagokio, ordaintzea nahitaez lotuta egongo da Oinarri hauen xede diren "birgaitze sakoneko" jarduerak finantzatzearekin. Nolanahi ere, laguntza horiek jabeen erkidegoak horretarako irekitako kontu korrontean ordainduko dira.

Onuradunek 10 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita. Onuradunek dirulaguntza onartu dutela ulertuko da, arestian aipatu epean uko egin dutela espresuki adierazi ez badute.

28. Artikulua – ERREKURTSOAK.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari eta interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar dezakete ebazpena eman duen organoaren aurrean, hil bateko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Berraztertzeko errekurtsoa administrazio-isiltasun bidez ezesten bada, espresuki edo ustez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsoa aurkeztu ahalko da, indarrean dagoen legeriaren arabera.

29. Artikulua – LAGUNTZEN BALDINTZAK ALDATZEA.

Jardueraren titularra pertsona fisikoa bada, laguntzak onartu dizkion administrazio-ebazpena eman ondoren, pertsona hori ordezkatzeak hura ezeztatzea ekarriko du, bai eta jarduketaren titular berriaren aldeko ebazpena ematea ere, aurreikusitako baldintzak betetzen baditu. Jabeen Erkidegoko ordezkariaren kasuan, ordea, eskabidea aurkezteko baimena eman zion kargua duenak ordezkatuko du.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketa, betiere laguntzen xedea bete dela eta, hala badagokio, beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako beste laguntza eta dirulaguntza batzuk ere jaso direla ulertzen bada, aldez aurretik jakinarazi beharko da, emakida ebazteko eskumena duen organoak berariaz onar ditzan, eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Horretarako, organo eskudunak dagokion aldaketa- edo kitapen-ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako laguntzen zenbatekoa berregokituko da, eta dirulaguntzak emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira. Onuradunak, hala badagokio, soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

Aurkeztutako dokumentazioaren azterketak erakusten badu energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurreztutakoa hasieran estimatutakoa baino txikiagoa dela eta eskatutako gutxienekoak baino handiagoa dela, kontzeptu horrengatik emandako laguntza publikoak aldatu eta gutxitu egingo dira.

Aurkeztutako dokumentazioaren azterketak erakusten badu energia primario berriztaezinaren kontsumoan aurreztutakoa hasieran estimatutakoa baino txikiagoa dela eta eskatutako gutxienekoak baino handiagoa dela, emandako laguntza publikoak aldatu eta gutxitu egingo dira.

Aldaketak ez du inola ere eraginik izango jarduketaren izaeran, eta ezingo du ekarri dagokion laguntza ematea justifikatzen duten baldintzak ez betetzea.

Obrak egin bitartean, aurrekontuan jasotako kontzeptuen barruan, partiden kostua beherantz aldatzen bada, emandako ebazpena aldatu egingo da, baldin eta aurrekontua, inbertsioa edo diruz lagun daitezkeen kostuak oro har murrizten badira. Ondorio horietarako, gutxitzeko ebazpena eman ahalko da.

Nolanahi ere, obrak ez egiteak, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak edo laguntzak jasotzeko gutxieneko baldintzak ez betetzeak, laguntzak ezeztatzea ekarriko du, eta jasotako zenbateko guztiak itzuli beharko dira.

30. Artikulua – EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

Dirulaguntza emateko ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da, honako hauek adierazita: deialdia, programa, zein aurrekontu-krediturri egozten zaion, onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren xedea edo helburuak.

Edozein hedabidetan laguntzen xede den jarduera aipatzen bada, Oinarri hauen 11. artikuluan azaltzen diren baldintzak bete beharko dira.

Gainera, hala badagokio, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoa bete beharko da, Oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei dagokienez.

31. Artikulua – DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Jabeen Komunitatea, bizikidetza-unitatea edo eskaera aurkezten duen partikularra –azken hori berez ordezkatuta egon daiteke– ordezkatzen duenak tramitatu beharko ditu laguntzak.

Lehen Fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Oinarri hauetako 25. artikuluaren arabera lehen fase gisa zehaztu den programan integratzeko eskari-idazkia Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan eta Donostiako Etxegintzaren webgunean jasotako ereduari jarraiki bete eta aurkeztu beharko da, ondoko datuekin batera:

a Eskatzailearen datuak, abizenak, izena edo sozietatearen izena eta IFZ adierazita. Eskatzailea birgaitzearen agente edo kudeatzaile bat bada, halakotzat jarduteko ahalmena eta baimena ematen dion laguntzen azken onuradun(ar)en erabakia aurkeztu beharko du.

b Hala badagokio, ordezkariaren datuak, abizenak eta izena, IFZ adierazita, bai eta duen ordezkaritzaren egiaztapena ere, aplikatzekoa den araudi espezifikoaren arabera.

Eskari-idazkiarekin batera, halaber, eta jabeen erkidegoen kasuan, idazkariaren edo administratzailearen aktaren edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, programan parte hartzeko gogoa adierazteko baimendutako ordezkariaren izendapena jasoko duena.

Bigarren Fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Oinarri hauetako 25. artikuluaren arabera bigarren fase gisa zehaztu den baloratutako aurreproiektua, ondoko dokumentazioarekin batera:

a- Garatu nahi duen jarduketa zehatzaren xehetasunak, eskatzailearen aldetik.

b- Jarduketari buruzko ondoko datuak aurkeztu beharko dira, Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan eta Donostiako Etxegintzaren webgunean eskuragarri egongo diren taulen ereduak erabiliz eta betez:

- Eraikineko osagai bakoitzak bere partaidetza-kuotaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoaren partaidetza-kuota adierazten duen taula.
- Jarduketen xede den eraikinaren edo eraikinen deskribapen osoa, dagokionaren arabera, azalera eraikia, posta-helbidea, guztizko altuera kopurua eta solairu bakoitzeko, beheko solairua barne.
- Jarduketen xede den eraikinaren etxebizitzen eta, hala badagokio, lokalen deskribapena, dagokionaren arabera, azalera eraikiak eta katastroko erreferentziak barne.
- Honako hauek idazteko ordainsarien aurrekontua: Eraikinaren Liburua, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa, aurreproiektua, oinarrizko proiektuak eta/edo egikaritze-proiektuak, obren zuzendaritza fakultatiboa eta egindako edo garatuko diren beste edozein lan tekniko edo kudeaketa-lan.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

c Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsona fisiko eta/edo bizikidetza-unitate zehatzen identifikazioa, kaltetuen beren aldetik. Azken horiek, kalteberatasun horri loturiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

Egoera horretan egon daitezkeen partikularren eta/edo bizikidetza-unitateen identifikazioa aurkeztu ostean, egoera hori egiazki egiaztatzeko ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Informatika-ohar xinplea, higiezinaren titulartasuna egiaztatuko duena.
- Bizikidetza-unitateko kideen IFZren fotokopia, baita errolda-ziurtagiria ere.
- Bizikidetza-unitateko adin nagusiko kide guztientzat: PFEZaren zerga-oinarrien ziurtagiria, orokorra eta aurrezkikoa, edo lan-etekinena eta atxikipenena, foru-aldundiak emana; edo, bestela, langabezia-prestazioen, pentsioen edo bestelako diru-sarreren ziurtagiriak, Gizarte Segurantzak edo beste erakunde eskudun batzuek eginak.

Oharra: Administrazio eta/edo erakunde jarduleari informazio hori bere datu-base propioan eta/edo beste erakunde publiko batzuen datu-baseetan bere kabuz lortzeko baimena eman dioten kaltetuek ez dute azken bi dokumentazio-erreferentzia horiek aurkeztu beharrik.

Hirugarren Fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Oinarri hauetako 25. artikuluari jarraiki hirugarren fasean aurkeztu behar den eskabideari ondoko dokumentazio erantsiko zaio:

a- Jabeen erkidegoaren, haren ordezkariaren edo, hala badagokio, higiezinaren jabe den pertsona juridikoaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) fotokopia.

b- Dirulaguntzaren xede den higiezina osatzen duten osagai guztien erregistro-inskripzioen ohar sinpleak.

c- Idazkariaren edo administratzailearen aktaren edo ziurtagiriaren kopia, non jasotzen baita erkidegoak, jabeen erkidegoek (behar bezala elkartuta) edo kooperatibaren batzarrak hartutako erabakia, laguntzen xede den eraikinaren birgaitze efizientea egitea onartzen duena.

d- Jabekideen Erkidego edo Mankomunitatearen berariazko banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, eraikinaren birgaitze efizienterako soilik erabiltzen dena. Kontu horretan sartuko da esleitutako laguntza. Halaber, eta hala badagokio, kalteberatasun egoeran dauden bizikidetza-unitateen banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.

e- Birgaitzeko dagoen Eraikinaren Liburua edo, halakorik ezean, eraikina edo etxebizitza hobetzeko potentzialari buruzko azterlan bat, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean definitutako oinarrizko betekizunei dagokienez, eta jarduketa-plan bat, proposatutako jarduketa eta hobekuntza identifikatzen dituena.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

f- Eraikinaren birgaitze efizienterako proiektu teknikoa, dagokionaren arabera. Proiektu horrek laguntzen azken xede d(ir)en pertsona onuradun(ar)en adostasuna izan beharko du, h) puntuaren arabera.

g- Hasieran, eta era alternatiboan, proposatutako jarduketa justifikatzeko memoria aurkeztu ahalko da. Memoria honetako gutxieneko dokumentazioak jarduketen deskribapena jasoko du, "IV. Kapitulua. JABEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK" delakoan jasotako apartatuen arabera xehatuta. Memoria horrekin batera, aurrekontuaren memoria aurkeztuko da, bai eta egindako planoak ere, irizpide berberekin eta Oinarri hauetako 4. artikuluko 01. Taularen arabera banakatuta. Gizarte-irizpidearengatiko laguntza eskatu duten jabeen eta bizikidetza-unitateen zerrenda ere aurkeztuko da, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioaz lagunduta.

h- Argazki-erreportajea, kolorez ahal dela, eraginak izango diren eremu guztiena, bai eta eraikinaren fatxada nagusiarena ere.

i- Lehendik dagoen eraikinaren edo etxebizitzaren energia-efizientziaren ziurtagiria, egungo egoeran, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan eskatutako edukiarekin, teknikari eskudunak sinatuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratuta.

j- Energia-efizientziaren ziurtagiri zenbatetsia, proiektuan edo justifikazio-memorian jasotako jarduketak barne, egun dagoen eraikinaren edo etxebizitzaren energia-efizientziaren ziurtagirirako erabilitako ziurtapen-programa berarekin egina, teknikari eskudunak sinatua.

k- Eskatutako laguntza guztien zerrenda, ehunekoa eta zenbatekoak, lehen adierazitako aurrekontu-banakapenaren arabera.

l- Erkidegoak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagirien fotokopia.

II.- LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK izeneko **8. artikuluan** zerrendatutako dokumentazio guztia, eskabidearekin batera aurkeztu beharrekoa.

m- Kalteberatasun ekonomikoko balizko egoerei buruz bigarren fasean aurkeztu den informazioaren eguneratzea, kaltetuen beren aldetik.

n- Donostiako Udalean obra-lizentzia eskatuz aurkeztutako idazkiaren fotokopia.

Agiri horiek aurkezteak esan nahi du oinarri hauek baldintzarik gabe onartzen direla.

HKBTk behar beste aldiz erreplikatu eta konpultsatuko du aurreko dokumentazioa, bai eta oinarri hauetan eta koordinatu beharreko beste edozeinetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak egiteko kasuan kasuko erakunde eskudunek eskatzen dutena ere.

32. Artikulua – DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.

Oinarri hauetan arautzen eta deitzen diren laguntzak guztiz bateragarriak izango dira Foru Ogasunek etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzea xede duten jarduketekin lotuta ezartzen

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

dituzten kenkariekin, hobariekin edo bestelako zerga-onurekin, betiere haien erregulazio espezifikoan xedatutako baldintzetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko Erabakiaren 4. oinarrian ezartzen den bezala, laguntza horiek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatu batzuek eman ditzaketen beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin, baldin eta xede berekoak badira edo helburu bera edo osagarria badute, eta, betiere, guztira, kasu bakoitzean babes daitezkeen aurrekontuen % 100 gainditzen ez badute. Laguntza horiek ez dira bateragarriak izango Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak jabeen erkidegoei eman diezazkiekeen laguntzekin.

Artikulu honetan xedatutakoa egiaztatzeko, Oinarri hauen bidez deitzen diren laguntzen eskabidean, xede berarekin eskatu edo eman diren gainerako laguntzen berri emango dute interesdunek, edo, bestela, xede berarekin beste eskabiderik edo emandako laguntzarik ez dagoela adieraziko da erantzukizunpeko adierazpen bidez.

Bateragarritzat jotako laguntzak izapidetzeko, bakoitzari dagokion oinarri eta deialdi arautzaileetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Talde teknikoek jarduketen aurrekontuaren eta laburpenaren banakapena emango dute, aurreikusitako jarduketa motei eta dirulaguntzak eskatzen zaizkion erakunde bakoitzaren izapidetze-betekizunei egokituta. Jarduketa bakoitzak aurrekontu independente bat izango du, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak eta egotz dakizkiokeen zerga guztiak jasoko dituena. Era berean, Oinarri hauetako 4. artikuluko 01 Taularen araberako jarduketen guztizkoaren batura izango den aurrekontua ere emango da.

Bateragarriak izango dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ezar ditzakeen beste laguntza batzuekin.

33. Artikulua – DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA. KONTURAKO AURRERAKINAK.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zinegotzi Ordezkariaren ebazpen bidez ordainduko dira, organo instruktoreak proposatuta, jarduketa bakoitzari dagozkion ataletan eskatutako egiaztagiriak aurkeztu eta, hala badagokio, egiaztatu ondoren. Ebazpen horretan espresuki aipatuko da funtsen jatorria.

Onartutako laguntzak jasotzeko, banku-transferentzia bat egingo da eraikinaren birgaitze efizienterako berariazko kontura. Kontu hori pertsona edo erakunde onuradunak baliozkotuko du eta, igorpen-ondorioetarako, dagokion hirugarrenaren alta bete beharko du aldez aurretik.

Era berean, Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zinegotzi Ordezkariaren ebazpen bidez, organo instruktoreak proposatuta, dokumentazioa aurkeztu eta egiaztatu ondoren, azken hartzaileei aurrerakinak eman ahal izango zaizkie oinarri hauetan jasotako dirulaguntzen gainean, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Aurrerakin horiek onuradunari emango zaion laguntzaren zenbateko osoaren % 20 ez gainditzea.

b) Aurrerakin horiek dirulaguntzaren xede den jarduketaren gastuak ordaintzeko baino ez izatea, eta bere egokitasuna egoki justifikatuta egotea.

Pertsona edo erakunde onuradunak ez ditu bermatu beharko aurrerakin horiek.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

34. Artikulua - DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO SEKUENTZIA.

Dirulaguntzen ordainketa sekuentzia eta prozedura honen arabera egingo da:

a. Lehenengo ordainketa, kasu bakoitzean eskatutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoaren % 20koa, aurrerakin gisa. Ordainketa hau udalak laguntza eman ostean egingo da, esleipen-ebazpenaren gehieneko data eta hurrengo bi hiletan. Gastua 2024ko aurrekontuari lotuko zaio. Ordainketari ondoko dokumentazioa erantsiko zaio:

   - Oinarri hauetako 8. artikuluan zerrendatutakoa.
   - Oinarri hauetako 31. artikuluan (dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa) zerrendatutakoa.
   - Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua egin izanaren faktura, eraikinaren egungo Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak eta birgaitutakoa barne hartzen dituena, Energia Primario Berriztaezinaren Kontsumoaren Murrizketaren ehunekoa berariaz adierazita.
   - Eraikinaren egungo Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria organo eskudunean erregistratzea.
   - Higiezineko etxebizitza guztien jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria, Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera.
   - Dirulaguntzaren xede diren obra guztiak gauzatuko direla bermatzen duten kontratuaren edo kontratuen fotokopia, obra gauzatzeko ardura duen enpresarekin edo enpresekin.
   - Obra Hasierako Aktaren kopia, jabeen erkidegoko presidenteak, eraikuntza-enpresaren ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatua.

b. Bigarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10ekoa, udalak laguntza esleitu ostean ordainduko da. Honako dokumentazio hau erantsiko da:

   - Oinarri hauekin diruz lagun daitezkeen jardueren gauzatze-zenbatekoaren % 10, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c. Hirugarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15ekoa, udalak laguntza esleitu ostean ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

   - Oinarri hauekin diruz lagun daitezkeen jardueren gauzatze-zenbatekoaren % 25, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

d. Laugarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15ekoa, udalak laguntza esleitu ostean ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Oinarri hauekin diruz lagun daitezkeen jardueren gauzatze-zenbatekoaren % 50, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

e. Bosgarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10ekoa, udalak laguntza esleitu ostean ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

- Oinarri hauekin diruz lagun daitezkeen jardueren gauzatze-zenbatekoaren % 75, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

f. Gainerako zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo atalean adierazitakoaren arabera.

Inola ere ez dira ordainduko fase bakoitzean justifikatutakoak baino zenbateko handiagoak.

Azkenik, aipatu beharra dago aurreikusitako birgaitze-jarduketa integrala burutu ez duten Erkidego horientzat 16. artikuluko b) epigrafeak jasotzen duen Aurretiazko Lanei loturiko balizko dirulaguntza 2024ko ekitaldian zehar ordainduko dela.

35. Artikulua – JASOTAKO LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA

Azken hartzaileek jarduketak gauzatu direla justifikatu beharko dute organo instruktorearen aurrean. Horretarako, eta oro har, jarraian agertzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, hurrengo deialdietan eska daitezkeen agiri osagarriak alde batera utzi gabe:

a Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla **justifikatzen duen jarduera-memoria**, Oinarri hauetan eta laguntza emateko ebazpenean eskatutakoaren arabera, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memoria hori teknikari tituludun eskudun batek egin eta sinatuko du, eta jardueren amaiera-data ere adieraziko du. Bertan, nahitaez bete beharreko araudia betetzen dela adieraziko da.

b **Justifikazio-kontuaren jakinarazpena**, horretarako dagoen ereduaren arabera.

c Aurretik **aurkeztu ez diren obra-gauzatzearen fakturak**.

d **Obren amaierako ziurtagiria**, obren zuzendari fakultatiboak emana eta sinatua.

e EITan identifikatutako patologiak eta kalteak **zuzendu izanaren ziurtagiria**.

f **Eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, jarduketak egin ondoren lortua**, esku-hartzearen aurreko ziurtagirirako erabilitako egiaztapen-programa aitortu berarekin egina, teknikari eskudunak sinatua, laguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratua.

g **Instalazio termikoaren ziurtagiria**, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimendutako instalatzaileak sinatua, Autonomia Erkidegoko organo eskudunean erregistratua, EITEren arabera.

h **Igogailua RAE erregistroan altan emanda dagoela egiaztatzeko agiria**, hala badagokio, segurtasunari dagokionez 88/2013 Errege Dekretuak zehazten dituen baldintzak betez.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

i **Gauzatutako obren argazki-dokumentazioa**, ahal dela kolorez.

j **Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasunak jasotzen dituen ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena**, zenbatekoak eta jatorria adierazita. Lehendakaria edo, hala badagokio, Erkidegoko idazkaria edo administratzailea den pertsonak emango du. Hala badagokio, etxebizitzaren titularraren edo titularren erantzukizunpeko adierazpena.

Obrak egiteko gehieneko epea 18 hilekoa izango da, obra-lizentzia eman dela jakinarazten denetik kontatzen hasita. Halere, laguntzaren eskatzaileei egotz ezin dakiekeen arrazoi justifikaturen batengatik obraren hasiera edo exekuzioa atzeratzen bada, luzapen bat eskatu ahal izango da, ezarritako epea amaitu aurretik.

Dirulaguntza ematea eragin zuen helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea (onuradunek egindakoa) bi hilekoa izango da, aurreko paragrafoan adierazitako data amaitzen denetik kontatzen hasita. Nolanahi ere, ezin izango da 2025eko urriaren 31z haraindi joan.

36. Artikulua – EZ-BETETZEA ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA.

Egiaztatzen bada onuradunek:

- Ez dutela erabili dirulaguntza eskatu eta eman zen helburu espezifikorako,
- Ez dutela gauzatu dirulaguntza eragin zuen jarduketa,
- Ez dutela beren aplikazioa justifikatu eskatutako helburu zehatzetarako edo, oro har,
- Dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzak betetzen ez dituztela,
- Uko egiten diotela ikuskapen-lana errazteari,
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera onuradunei esleitutako betebeharretako edozein bete ez dutela, edo horiek epez kanpo bete dituztela, baldin eta baldintzak edo epea guztiz betetzea erabakigarria bada lortu nahi den helburu publikoa lortzeko; edo
- Oinarri hauetako 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

Error: no se encontró el origen de la referencia

Interesdunari entzun ondoren, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratuko da, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Higiezinaren etxebizitza baten edo batzuen jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria aurkeztu ezean, emandako

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

laguntza murriztu egingo da, jabetza horizontalaren zatiketan etxebizitza horiei higiezin osoan esleitutako partaidetza-kuotaren ehuneko baliokidean.

Administrazioaren zerbitzuek egiaztapen edo kontrol finantzario bat egitean agerian geratzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza kobratu ondoren, eta hartzekodunek eskatu ahal badute, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz eskatuko da itzulketa, eta, horretarako, dirulaguntza itzulgarritzat joko da, ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

Era berean, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da, eta horrek dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa eskatzea dakar.

37. Artikulua – DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK. ZEHAPEN-PROZEDURA.

Gai honi dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. eta 69. artikuluen artean eta uztailaren 21eko 887/2008 Errege Dekretuaren 102. eta 103. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

38. Artikulua -ADMINISTRAZIO BIDEAREN AMAIERAREN ADIERAZPENA.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, ebazpenaren adierazpena jasotzeko egunaren biharamunean hasiko den hil bateko epean, Ebazpena eman zuen organoaren aurrean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi hileko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.

39. Artikulua – DATU PERTSONALEN BABESA.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, erakunde eskatzaileak adierazi du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarri hauek osorik onartzen dituela. Halaber, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan tratatzea eta Donostiako Udalaren behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarren batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hirigintza Sostengagarria
Urbanismo Sostenible
San Martin, 48 | Tel. 010 - 943483838 | www.donostia.eus
20005 Donostia / San Sebastián

I. ERANSKINA.

LAGUNTZAK JASO DITZAKETEN BIZITEGI-ERAIKINEN ZERRENDA:

KALEAK	ATARIAK
ALTZA,PS DE	2 a 36 pares, 3-5-11-13
ARRIBERRI,GR	todos
ARRIZAR,GR	todos
BERTSOL. TXIRRITA,PS	70-72
CASARES,PS DE	127 a 157 impares
DARIETA,CM DE	1 a 7
ELIZASU	todos
ERROTETA	todos
HERRERA,PS DE	70 a 92 pares
LARRATXO,PS DE	94
ROTETA AZPIKOA	todos
ROTETA BEHEKO	todos
ROTETA GOIKOA	todos
SANTA BARBARA	todos
TXAPIÑENEA	1-3

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.
2023 MAI. MAY. 16
Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,